

Banatzaille bakarra izango da molusku hori salduko duena bere dendetan Amarra markarekin

EROSKI-K EUSKAL MUSKUILUA MERKATURATZEKO APUSTUA EGIN DU

- Kantauriko euskal kostaldean landuko den lehen muskuilua da, zehazki Mendexan, *Long-Line* izeneko sistema berritzaile baten bitartez, itsas zabalean, non 40 metrora dagoen ainguratze sistema batekin eta hazkuntzarako buia eta sokekin lortzen den itsas zapore berezia duten muskuiluak ekoiztea. KMO produktua da, eta itsasoan iraunkortasuna sustatzen laguntzen du, baita tokiko ekonomia bultzatzen ere
- Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartua du tokiko produktuak babesteko eta sustatzeko, eta proiektu hau ere hor sartzen da; hala berean, EROSKI-k HAZI Fundazioarekin duen lankidetzaren indartu egingo da
- EROSKI-k konpromisoa hartua du bere dendek ingurunekeko elikagaiak merkaturatzeko; horrela, lehen sektore iraunkorrago bat bultzatzen du, eta ekoizpen ehunaren dibertsitate maila handiari eusten dio

Elorrio, 2021eko abuztuaren 19a.- [EROSKI](#)-k apustu egin du Euskal Muskuiluaren proiektuaren alde, [AZTI](#)-rekin batera, eta elikadura kate bakarra izango da Amarra izeneko euskal muskuilua salduko duena bere dendetan, tokiko produktuaren kontsumoa sustatzeko konpromisoa baitu. Proiektu berritzailea da; izan ere, EROSKI-k molusku espezie hori freskotan saltzen lagunduko du EAEko hipermerkatu eta supermerkatuetan dituen arrandegietan, baita kontserbatan ere.

Euskal Muskuilua, hazkuntzako muskuilua da, Ondarroa eta Lekeitio arteko kostan hazia, *Long-Line* izeneko soka sistemaren bitartez, zeina egokia baita Kantauri itsasoan izaten diren kontrako baldintza meteorologikoak jasateko. Muskuilu txikiak era naturalean itsasten dira hazi-bilgailu batzuetan, eta, gure uretako mantenuaiekin bi urtean hazi ondoren, kontsumorako tamaina egokia hartzen dute.

Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartua du tokiko produktuak babesteko eta sustatzeko, eta proiektu hau ere hor sartzen da; hala berean, EROSKI-k HAZI Fundazioarekin duen lankidetzaren indartu egingo da.

"Urtero indartzen dugu tokian tokiko ekoizleen aldeko apustua. Hori ikus daiteke, euskal ekoizleei egindako erosketak handituz doazelako. Hala, hurbileko produktuen eta sasoiko freskoen eskaintza zabala bihurtu da gure dendek bereizgarri printzipalenetako bat. Era berean, apustu egiten dugu tokiko produktuan elikagai berrikuntzak sortzearen alde, eta horren erakusgarri da Amarra proiektua. Gure tokiko hornitzaileekin lankidetzaren estu bat bilatzen dugu, luzera begirako hitzarmenak

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
Eduarne Izquierdo

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

lortzeko eta hala eskualdeko nekazaritzaren eta sozioekonomiaren garapenean laguntzeko", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

"Muskuilua lantzen den tokia ez dago babestuta Kantauri itsasoan izaten diren baldintza meteorologiko gogorretatik; hori dela medio, gure lana zailagoa da, baina muskuiluari itsas zabaleko zapora berezia ematen dio. Proiektua ez zen gauzatuko Matxixako Moluscosek berrikuntzan egin duen inbertsioagatik izan ez balitz. Instalazio bakar bat garatu du, probak eta azterketak egiten urteak eman ostean itsas zabaleko zapora duen muskuilua haztea lortzeko; gainera, gure ingurumena errespetatzen du eta, hala, tokiko kontsumitzaileari mantenugaietan aberatsa den tokiko produktu bat eskain diezaiokegu gure itsasoetarako iraunkorra izanik", adierazi du Iñigo Gurruchagak, Amarrako zuzendari komertzialak.

EAEko lehen sektorearentzako laguntza

EROSKIk konpromisoa hartua du bere denden ingurunean elikagaiak merkaturatzeko; horrela, lehen sektore iraunkorrago bat bultzatzen du, eta ekoizpen ehunaren dibertsitate maila handiari eusten dio. EROSKI hemengo 1.700 hornitzailearekin baino gehiagorekin aritzen da. Urtero 740 milioi euro baino gehiagoko erosketak egiten ditu erkidegoan. Tokiko ekonomiaren alde ingurunean ekoizleekin egiteko apustu horretan, hitzarmenak eginak ditu, hala berean, sektoreko erakundeekin, nekazari kooperatibekin eta nekazaritzako elikagaien arloko hemengo elkarteekin. Hitzarmen horien xedea da osasun krisi honetan nekazari eta abeltzain txikiei beren ekoizpen sailak merkaturatzen laguntzea, ohiko salmenta kanalak galdu baitzituzten (errestaurazioa, kolektiboak...) COVID-19aren osasun alertagatik. Horretarako, lehen sektoreari laguntzeko lankidetzaren sistema bat garatu du, haien soberakinak bere dendetan saltzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
Edurne Izquierdo

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)